

Perpaus bakuna eta perpaus elkartua

- 1 Lotu bi multzoetako esaldiak, behean osatu perpaus elkartuak, juntagailu egokiak jarrita.

Oso gustuko dut jatea... Goizetan, aitak esnatzen nau... Entsegu asko egin ditugu... Afaltzera iritsiko naiz...	...berandu. ...denetarik, gainera. ...bestela, ez nintzateke jaikiko. ...ondo aterako da emanaldia.
baina izan ere	eta beraz

Oso gustuko dut jatea... ..

Goizetan, aitak esnatzen nau... ..

Entsegu asko egin ditugu... ..


Afaltzera iritsiko naiz... ..

- 2 Idatzi **J** edo **M** perpaus elkartu hauek **juntatuak** ala **mendekoak** diren, eta, mendekoetan, idatzi aditz nagusia marran.

- Atzerrian bizitzea gogorra da, baina pertsona batzuk pozik bizi dira. →
- Ikaragarri gustatzen zait laranja-zukua, oso freskagarria baita. →
- Ainhua eta biok lagun onak gara; horregatik, sarri elkartzen gara. →
- Txirrina jotzen duenean, berehala sartzen gara ikasgelara. →

- 3 Idatzi lokailuak hutsuneetan, bat "beraz" da, besteak 2.ekoak. Horiekin osatu gurutzegrama.

1. Jertse hau oso polita da;,
janzten dut hainbeste.
2. Biribilean jarri gara, elkarri
entzun diogu, zalantzak argitzeko.
3. Lan handia egin dute;, uste
dute ona izango dela emaitza.
4. Udan gaude, euria ari
du etengabe.



4 Irakurri esaldi hauek, eta idatzi lerro bakoitzean bakuna ala elkartua den.

- Beñati astelehenean egingo diote ebakuntza. →
- Bihar, antzerkia ikustera noa Ainhoarekin, lagunak baikara. →
- Ibanek oso gustuko du irakurtzea; horregatik ditu hainbeste liburu. →
- Arratsaldean, igerilekura joango naiz aitarekin. →

5 Irakurri testua, eta idatzi zer perpaus mota den: bakuna edo elkartua.

Aitziber nire lehengusina da.
15 urte ditu, eta Zumaian bizi da. Ederki moldatzen gara biok, adin bertsukoak baikara. Ostiralean etorriko da; beraz, irrikan nago hura ikusteko.

Aitziber nire lehengusina da.

15 urte ditu, eta Zumaian bizi da.

Ederki moldatzen gara biok, adin bertsukoak baikara.

Ostiralean etorriko da; beraz, irrikan nago hura ikusteko.